

01/2023 UDALEKO OSOKO BILKURA

2023KO URTARRILAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)
Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)
Aitzol Esnaola Zubeldia (EH Bildu taldea)
Amaia Urkola Arocena (EH Bildu taldea)
Mikel Olano Aburuza (EH Bildu taldea)
Agurtzane Nuñez Yarla (EAJ taldea)
Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)
Rafael Uribarren Axpe (EAJ taldea)
Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)
Jaime Peon Ormazabal (EAJ taldea)

IDAZKARIA:

Erika Sagarzazu Camino

EZ BERTARATUTAKOAK:

Anoetako Udaletxean, 2023ko urtarrilaren 30ean, arratsaldeko 19:03tan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ohiko osoko bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen lehendakaritzapean, eta Erika Sagarzazu Camino aritu da Idazkari lanetan.

Alkatearen aginduz bilerari hasiera emanda, saio honetako gai zerrendako gaiak aztergai jarri zaizkie Udalbatzako kideei, eta gai horiei buruz ondorengo erabakiak hartu dituzte:

I. EBAZPENAK

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2022ko azaroaren 30ean egindako Osoko Bilkuraren akta aho batez onartu dute.

2.- GALTZAUNDI EUSKARA TALDEAREN ETA ANOETAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA BERRESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

Batzordeburuak adierazitako lankidetzaz hitzarmenaren nondik norakoak azaltzeari ekin dio, ondorengo azalpenekin.

Indarrean dagoen Anoetako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (2022-2024) aurreikusita dago Galtzaundi Euskara Taldearentzako diru-laguntza lerroa (GAOn 2022ko apirilaren 19an argitaratua):

Dirulaguntza lerroa: Galtzaundi Euskara Taldea

<i>Eskumen arloa</i>	<i>Euskara</i>
Sektore hartzaileak	Euskalgintzan eta euskararen sustapenean ari diren erakundeak
Helburuak	Euskalgintzan eta euskararen sustapenean lanean ari diren erakundeei laguntza ematea, euskararen normalizazioaren alde egiten duten lana bultzatzeko
Lortu nahi diren ondorioak	Euskalgintzaren lanari sendotasuna ematea
Egikaritze epea	Zehaztu gabe.
Kostuak eta finantzaketa iturriak	Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin egiten da.
Ekintza Plana	Dirulaguntza izendunei dagokien legezko tramiteak jarraituko dira: eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.
Jarraipena eta ebaluazioa	Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzek beren helburua bete duten edo ez.

<i>Partida</i>	<i>Onuraduna</i>	<i>Azalpena</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Mota</i>	<i>Indarreko planean aurreikusia</i>
1 0000.481.335.41.00	GALTZAUNDI EUSKARA TALDEA	Euskalgintza eta euskararen sustapenean ari den erakundea	5.500 €	Izenduna	16.500 €

Bestetik, 2022ko udal-aurrekontuetan (GAOn 2022ko urtarrilaren 25ean argitaratua) aurreikusita zegoen 5.500 euroko partida (1 0000.481.335.41.01 2022 (803) *Dirulaguntza. Galtzaundi Euskara Taldea*).

2022ko otsailaren 15ean Galtzaundi Euskara Taldeak dirulaguntza eskaera egin zuen eta horrekin Identifikazio Fiskaleko Kodea, ordezkaritza egiaztatzen duen agiria, Foru Ogasunarekiko nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen agiriak, erantzukizunpeko adierazpena, jardueren proiektu xehaketa eta gastu-sarreraren aurreikuspena aurkeztu zituen.

Anoetako Udaleko Euskara teknikariak 2022ko abenduaren 19an egin zuen Galtzaundi Euskara Taldearekin lankidetzaz hitzarmena egiteko proposamena.

Idazkari Kontu-hartzaileak txostena egin zuen 2022ko abenduaren 21ean, eta jarraitu beharreko prozeduraren gainean ondorengo jasotzen zuen hirugarren puntuan:

“...

Galtzaundi Euskara Taldeari atxikitzeako eskatzeko prozedura honako hau izango da:

A) Galtzaundi Euskara Taldeari atxikitzeako dagokion prozedura hastea, eta haren ekimena arrazoitzea eta justifikatzea.

B) Kontu-hartzaitzak txosten bat egingo du atxikitzearen ondorio ekonomikoak zehazteko.

C) Kontu-hartzaitzaren txostena ikusita, Udalbatzak Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoarekin hartutako erabakiaren bidez (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.g. artikulua), hasiera batean onartuko du Udala Elkarteari atxikitzea.

D) Atxikitzeako erabakia hilabeteko epean jarriko da jendaurrean, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez, interesdunek egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzaten.

E) Aurkeztutako alegazioen berri eman ondoren, Udalbatzak, kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz hartutako erabakiaren bidez, elkarteari behin betiko atxikitzea erabakiko du, eta elkarteari jakinaraziko dio, gobernu-organoak beharrezko erabakiak har ditzan.

F) Atxikipena behin betiko onartu ondoren, Hobeki Elkarteari igorriko zaio erabakia, dagozkion ondorioak izan ditzan.

...”.

Ikusita 2022ko abenduan ez zela Osoko Bilkurarik egingo eta, beraz, ezinezkoa izango zela Galtzaundi Euskara Taldearen eta Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena, baita hari ekarpenaren ordainketa ere, Udalbatzak onartzea. Ikusirik, aitzitik, Galtzaundi Euskara Taldeak bere zerbitzuak dagoeneko eskaini zizkiola Anoetako Udalari. Eta kontuan hartuta 2022ko aurrekontuaren menpe joan behar zuela ordainketak, eta hitzarmenaren indarraldia 2022ko abenduaren 31rainokoa zela, Idazkari Kontu-hartzaileak 2022ko abenduaren 21ean egindako txostenean jasotakoaren kontra, egun berean Alkatetzak ondorengo ebatzi zuen, Udalbatzak 2023ko urtarrilaren Osoko Bilkuran berrestu zezan:

“...

Lehen: *Onartzea Galtzaundi Euskara Taldearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmena.*

Bigarrena: *Onartzea 5.500 euroko gastua Galtzaundi Euskara Taldearen alde, goian adierazitako hitzarmenaren arabera.*

Gastua 1 0000.481.335.41.01 2022 (803) “Dirulaguntza. Galtzaundi Euskara Taldea” aplikazioari egotziko zaio.

Transferentzia ES88 2095 5081 9910 6184 8692 (KUTXABANK) kontu zenbakira egingo da.

...”.

Adierazitako azalpenak eman ondoren, besterik gabe eta eztabaidarik egin gabe, Kontuatarako Batzorde Bereziak, aho batez, Udalbatzari honako akordioa proposatzea erabaki du:

AKORDIO-PROPOSAMENA



Bakarra. Berrestea Alkatetzak 2022ko abenduaren 21eko dekretu bidez ebatzitakoa eta, beraz, Galtzaundi Euskara Taldearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, baita horren arabera haren alde onartutako gastua ere.

Hala ere, Udalbatzak egokitzen jotzen duena erabaki ahalko du.

... ».

Behin Idazkariak Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak aho batez honakoa onartu du:

EBAZPENA

BAKARRA. Berrestea Alkatetzak 2022ko abenduaren 21eko dekretu bidez ebatzitakoa eta, beraz, Galtzaundi Euskara Taldearen eta Anoetako Udalaren arteko lankidetzahitzarmena, baita horren arabera haren alde onartutako gastua ere.

3.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA BEHIN-BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.

Alkateak hitza eman dio Idazkariari eta horrek Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziak gaurko egunean egindako bilkuran emandako irizpenaren berri eman du. Irizpen horren edukia honakoa da:

[...]

Udaleko Idazkaritzak eta Kultura Dinamizatzailerak kiroldegiko arduradunarekin izandako bilera baten harira, eta Kultura Dinamizatzailerak egindako proposamenetik abiatuta, Batzordeburu jaunak Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea aldatzeko espedientea aurkeztu dio Batzordeari, ondorengo adierazitako moduan, Idazkaritza Kontuhartzaileak proposatutakoaren harira (aldaketak kurtsibaz eta azpimarratuta):

«...

L. UDAL KIROLDEGIAN IKASTARO EDO KIROL AKTIBITATEAK

TALDEA	ADINA	URTEKOA	HILABETEA
Haurrak	0-15 urte	30,00 €	6,00 €
Gazteak	16-24 urte	50,00 €	8,00 €
Helduak	25-64 urte	95,00 €	12,00 €

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK:

- Urteko abonua: urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra izango da. Urteko abonua egiteko eskaera abenduaren 15a baino lehen egin beharko da (jai egun baldin bada, hurrengo eguna).
 - Hileko abonua: hilabete naturala izango da. Hileko abonua egiteko, aurreko hilabetearen 15a baino lehen aurkeztu beharko da alta inprimakia sinatuta kiroldegian (jai egun baldin bada, hurrengo eguna).
 - Abonua egin aurretik proba egiteko aukera egongo da aurreko hilaren 15a baino lehen (jai egun baldin bada, hurrengo eguna). Kiroldegia abuztuaren itxita egoten denez, irailean hasi nahi duenak uztailaren lehen hamabostaldian izango du probatzeko aukera.
 - Hileko abonuen kasuan, automatikoki luzatuko dira. Beraz, norbaitek jarraitu nahiko ez balu, baja inprimakia aurkeztu beharko luke kiroldegian aurreko hilabetearen 15a baino lehen (jai egun baldin bada, hurrengo eguna).
 - Abonuetan zorrak dauzkateneki baja emango zaie automatikoki, eta ezingo dute kiroldegian sartu zorra kitatu arte.
 - Zorrak aurreko hilaren 15a baino lehen kitatu beharko dira (jai egun baldin bada, hurrengo eguna).
- Behin kitatu ondoren, berriro alta inprimakia bete beharko du erabiltzaileak, eta 12 euroko penalizazioa ordaindu beharko du lehen hilean.
- Zorrak ez badira kitatzen, udalak martxan jarriko du bahiketa prozesua.
 - Zorra kitatu bada, kiroldegiak berriro aktibatuko du txartela.
 - Abonu familiarra: familiako partaide bakoitzaren kuotaren batuketari %10eko deskontua egingo zaio.
 - Hobari guztiak %25a: abonatuak, famili ugaria, ikaslea, langabetua, gazte txartela, 65 urtez gorakoa, jubilatua edo pentsioduna.
 - Hobariak Anoetan errolatutakoei soilik aplikatuko zaizkie.
 - Baliabide eskasiagatik salbuespen edo bajak ezarri ahal izango dira kuotan, udalak hala ebazten duenean, udal Gizarte Zerbitzuek dagokion prozedura izenpetu ondoren.
 - Langabetuen deskontua bakarrik hilabete bakoitzeko bonoetan aplikatuko da
 - Hobari bakarria aplikatuko da, erabiltzaileak eskatutakoan artean berarentzat onena dena.
 - Alta edo baja emateko, inprimakia bete eta sinatu behar da kiroldegian. Ahoz esatea ez da nahikoa izango. Inprimakiaren kopia emango zaie erabiltzaileei.

2.- EGUNEROKO SARRERAK

TALDEA	ADINA	EGUNEROKO SARRERA
Haurrak	0-15 urte	2,50 €
Gazteak	16-24 urte	3,00 €
Helduak	25 urtetik aurrera	4,00 €

Oharra: Eguneroko sarreren kasuan ez da hobaririk aplikatuko. Momentuan ordainduko dira kiroldegian, eta inprimakiaren kopia emango zaio eskatzaileari.

3.- KANTXAREN ALOKAIRUA

	TARIFAK (orduko)		BALDINTZAK
	Haurrak	Gainontzekoak	
Abonatuak	Dohainik		

Ez abonatuak	10 € orduko edo eguneko sarrera ordaindu	15 € orduko edo eguneko sarrera ordaindu	- Pertsona edo talde bakoitzak gutxienez ordu beteko eta gehienez egun bateko erreserba egin ahal izango dute, erreserbaturiko ordu bakoitza dagokion prezioan ordainduz - Lehentasuna talde federatuek eta herritarrek izango dute.
--------------	--	--	---

Instalazioak erabili nahi dituztenek eskaera orria bete eta sinatu beharko dute, eta eskaeraren kopia emango die kiroldegiak.

Indarrean dauden tarifak begi bistan egongo dira kiroldegian bertan, eta udalaren web orrian ere azalduko dira.

Udalak tarifa ordaintzetik salbuetsi ahalko ditu hainbat talde eta erakunde, herrikoak zein kanpokoak.

Partikularren eskaeren kasuan, kiroldegiak jasoko du momentuan alokairuaren tarifari dagokion dirua, eta inprimakiaren kopia emango dio eskatzaileari.

Talde edo erakundearen eskaeren kasuan, udaleko bulego orokorretatik bideratuko da kobratzeko prozedura.

Urteko abonuetarako aurreikusitako hobariak ez dira aplikagarriak.

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK:

Instalazioen erabilera bete beharrekoak:

- Entrenamenduetan gazteak arduradun batekin egongo dira une oro.
- Gertatutako edozein matxura edo kalte, baimenaren titularraren kontura izango da.
- Udalak gela hori beharko balu, emandako baimena indarririk gabe geratuko litzateke edozein momentutan, interesdunak kalte-ordainerako eskubiderik izan gabe, bere kasuan ordaindutako tarifa bueltatuta.

4.- IKASTARO EDO KIROL AKTIBITATEAK

- Ikastaroetan parte hartzeko, alta inprimakia bete eta sinatu beharko da kiroldegian, izen-emate epeak errespetatuz. Eta jarraitu nahi ez dutenek baja inprimakia bete eta sinatu beharko dute kiroldegian, ezarritako epeak errespetatuz. Epe hauek kartelen bidez jakinaraziko ditu kiroldegiak. Eta kiroldegiak alta edo bajaren inprimakien kopia emango dio eskatzaileari.
- Ez da aukerarik emango probatzeko.
- Ikastaroak 3 hilez behin kobratuko dira.
- Ikastaroetan zorrak dauzkatenek baja emango zaie automatikoki, eta ezingo dute ikastaroa egin zorra kitatu arte.
- Zorrak behin kitatu ondoren, berriro alta inprimakia bete beharko du erabiltzaileak, eta 12 euroko penalizazioa ordaindu beharko du. Eta kiroldegikoak berriro aktibatuko du txartela.

- Zorrak ez badira kitatzen, udalak martxan jarriko du bahiketa prozesua.
- Berriro alta inprimakia aurkezten bada, kiroldegia udalarekin harremanetan jarriko da ziurtatzeko ea zorra kitatu den ala ez.
- Adin-txikikoen kasuan, arduradunak beren gurasoak, tutore edo ordezkari legalak izango dira.

TARIFAK EZARTZEKO ARAUAK:

- 1.- Matrikula egin ahal izateko, egiaztatu beharko da interesatuaren famili unitateak ez duela zorrik kiroldegiko zerbitzuei dagokienez.
- 2.- Hobariak Anoetan erroldaturik daudenei eta abonatuak (edozein herritakoak izanda) soilik aplikatuko zaizkie. Hauek dira:
 - a) 17 URTEZ GORAKOENTZAKO IKASTAROA: Abonatuak, Gazte Txartelaren jabe direnek, famili ugariak, ikasleak, jubilatutakoak, pentsiodunak, langabetuak eta 65 urtez gorakoak %25eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan dagokion agiriaren kopia aurkezten badute.
 - b) 16 URTE BITARTEKOENTZAKO IKASTAROA: Gazte Txartelaren jabe direnek eta famili ugariak %25eko beherapena izango dute, beti ere matrikula egiterakoan dagokion agiriaren kopia aurkezten badute.

DIRU-SARRERA BAXUAK dituztenek hobari bereziak izan ahalko dituzte, ondorengo taulari jarraituz:

ETXEAN BIZI DIREN PERTSONAK	%50	%25
1 PERTSONA	S.M.I	S.M.I + %20
2	S.M.I + %10	S.M.I + %30
3	S.M.I + %20	S.M.I + %40
4	S.M.I + %30	S.M.I + %50
5	S.M.I + %40	S.M.I + %60
6	S.M.I + %50	S.M.I + %70

- d) Hobari bakarrik aplikatuko da, erabiltzaileak eskatutakoan artean berarentzat onena dena.
- e) Abonatuak eta Anoetan erroldatutakoak izango dute lehentasuna.
- f) Ikastaroetan izena ematen duenari hiruhileko osoa kobratuko zaio, eta ez zaio dirurik bueltatuko lehenago uzten badu.
- g) ~~Hasita dauden ikastaroetan pertsona berriak onartu ahal izango dira, oraindik plaza libreak baldin badaude, eta dagokion tasaren zati proportzionala ordainduko dute.~~
- h) ~~Ikastaroetan arrazoiturikoak ematen baldin badute (lesioak, haurdunaldia...), klase kopuruarekiko zati proportzionala itzuliko zaie.~~

HOBARIAK APLIKATZEKO AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Famili ugariak: Famili ugariako txartel eguneratuaren fotokopia
- Langabetuak: Lanbideko txartel eguneratuaren fotokopia
- Ikasleak: ikasle txartela eguneratuaren fotokopia
- 65 urtez gorakoak: Nortasun agiriaren fotokopia edo errolda agiria.

- Pentsiodunak: Pentsiodun agiriaren fotokopia

- Baliabide eskasiagatik salbuespen edo bajak ezarri ahal izango dira kuotan, udalak hala ebazten duenean, udal Gizarte Zerbitzuek dagokion prozedura izenpetu ondoren.

...”.

AKORDIO-PROPOSAMENA

LEHENENGOA. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean eta Alkatetzaren proposamenean agertzen den testuarekin.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztzen ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

... ».

Horiek horrela, eta kontuan hartuta 2023ko urtarrilaren 26an Idazkaritza Kontu-hartzaileak egindako txosten juridikoa, fiskalizazio txostena eta ebazpen-proposamen txostena.

Ogasuneko Batzorde honek uste du betetzen direla zerga arautzen duen ordenantza fiskalean aurrez aipatutako legezko arauetan jasotako beharrezko baldintzak, eta Udalbatzari proposatzen dio honako erabaki hau hartzea:

AKORDIO-PROPOSAMENA

LEHENENGOA. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean eta Alkatetzaren proposamenean agertzen den testuarekin.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkeztzen ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

Hala ere, Udalbatzak egokitzen jotzen duena erabaki ahalko du.

...].

Behin Idazkariak Ogasun eta Kontu Batzorde Bereziaren irizpena irakurtzeaz bukatutakoan, Udalbatzak aho batez honakoa onartu du:

EBAZPENA

LEHENENGOA. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailearen aldaketa behin-behinean onartzea, espedientean eta Alkatetzaren proposamenean agertzen den testuarekin.

BIGARRENA. Aurreko erabakia jendaurrean jartzea, iragarki bidez. Iragarki hori udal-iragarki-taulan eta probintziako aldizkari ofizialean jarriko da hogeita hamar egun balioduneko epez, iragarki hori probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Halaber, interesdunen eskura jarri beharko da Udal honen egoitza elektronikoan.

HIRUGARRENA. Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, erabakia behin betikoa dela joko da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

LAUGARRENA. Alkateari ahalmena ematea gai honekin zerikusia duten agiriak sinatzeko.

II. GOBERNU ORGANOEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA

ALKATETZA

4.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkatetzak 2022ko azaroaren 16tik 2023ko urtarilaren 15a bitarte, biak barne, emandako ebazpenen berri eman da eta zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

ANTOLAKUNTZA

5.- KONTROL-ORGANOAK EGINDAKO ERAGOZPENEZKO TXOSTENEN AURKA ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 70.6 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoa jarraituz, kontrol-organoak lehengo Osoko Bilkuratik egindako eragozpen-txostenen aurka Alkateak emandako ebazpenen berri ematen zaio Korporazioari (aurreko puntuan berri eman direnen artekoak):

538. DEKRETUA	
2022.11.21	
Hartzekodunak	IFZ / IFK
EGOITZ JAUREGI ITURRIOZ	72507188X
ME	Zenbatekoa
816-2022	169,48 €
Kontzeptua	
Udalak Bake-epaitegiko idazkariari ordaindutako ordainsari osagarria	
Laburpena	
Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2022ko azaroaren 21ean egindako eragozpenezko txostena.	
Bake-epaitegiko idazkari funtzioak betetzen dituen pertsona ez da udal-funtzionario bat; beraz, Estatuko Administrazioak kargua betetzeagatik ematen duen ordainsaria jasotzeko eskubidea baino ez du, eta Udalak ezin dio aparteko ordainsaririk ordaindu, ez baita udal-administrazioan integratzen.	

545. DEKRETUA		
2022.11.22		
Hartzekodunak	IFZ / IFK	
ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA	A20145496	
Prozedura		
Kontratu txikia		
Aurrekontu zenbakia	Bidalketa data	Zenbatekoa (BEZ barne)
51466	2022.11.10	1.300 €
Laburpena		
Idazkaritza Kontu-hartzailezak 2022ko azaroaren 22an egindako eragozpenezko txostena.		

Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontratua gutxienez 2018tik kontratatzen etorri da eta, gainera, enpresa berarekin, hainbat kontratu txiki kateatuz. Hortaz, argi dago Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu dituela; izan ere, urtez urte enpresa berarekin kontratatu du hornidura berdina, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Berririo gogorarazten da SPKLren 29.8 artikuluan jasotakoa (“*Los contratos menores definidos en el apartado primero del artículo 118 no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga*”), baita Kontratazio Publikoaren Aholku-Batzordeak 2020ko martxoaren 5ean emandako 1/2020 Gomendioaren c) letran jasotakoa ere (“*Gauzak horrela, segidako traktuko kontratuak, edo guztira hamabi hilabete baino gehiagoko iraupena duten aldizkako errepikapeneko kontratuak, nahiz eta batzuetan zenbatekoa oso txikiak izan, ez dira kontratu txikitzat hartuko segidako aurrekontu-ekitaldietan xede berarekin esleituko badiera ere*”).

Gainera, kontratuaren espedientean ez da justifikatzen kontratuarekin ase beharreko beharra, ezta baliabide propio nahikorik ez izatea ere. Horrek guztiak urratzen du bai SPKLan bai 1/2021 Jarraibidean xedatutakoa.

Ondorioz, goian adierazitako kontratazio-proposamena ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore

Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak urteroko Berriak Berri udal aldizkaria maketatzeko eta inprimatzeko zerbitzu-kontrata prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu beharko luke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

555. DEKRETUA

2022.11.29

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEG. Y REAS SA	A28141935
Prozedura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea	6,65 €
Kontzeptua	Faktura
Kiroldegiko obradorearen aseguruaren zati proportzionala.	1463 (2022-10-07)

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2022ko azaroaren 28an egindako eragozpenezko txostena.

Aipatutako gastua justifikatzeko ez da dekreturik atxikitu, bakarrik polizaren kopia eta faktura. Idazkaritza Kontu-hartzaileak honek bilaketa egin du Udaleko bulegoetan eta ez du topatu Kiroldegiko obradorearen aseguruaren zati proportzionalaren aseguru kontratatze kontratu-espedienterik. Idazkari-kontuhartzaile honek kontulta egin du Sarekon, Gipuzkoako Foru Aldundiako aplikazioa kontabilitatea kudeatzeko, eta ikusi du lehenengo aldia dela Kiroldegiko obradorearen aseguru kontratatzen dena.

Aipatutako aseguru inolako legezko euskarririk gabe kontratatu da. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarrizko printzipioak urrati ditu. Izan ere,

“*Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako*” kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak kiroldegiko obradorearen aseguru prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango lituzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

556. DEKRETUA

2022.11.29

Hartzekodunak	IFZ / IFK
TARSAT	B20765665
Prozedura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea	451,16 €
Kontzeptua	Faktura
Kiroldegiko ur-depositoan ihesa konpontzea	46/22 (2022-10-01)

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2022ko azaroaren 28an egindako eragozpenezko txostena.

2014ko urtarrilaren 1ean Anoetako Udalak kontrata sinatu zuen Calefacción Tarsat, S.L. enpresarekin. Horrezkeroz, enpresa berdinak zerbitzu bera ematen jarraitu du, inolako kontratu-oinarririk gabe, eta hilabetero

enpresak helarazitako fakturak iritsi dira, goian adierazitakoa 2022ko bigarrena izanik.

Anoetako kiroldagiko ur bero eta berokuntza sistemen mantenu-zerbitzua inolako legezko euskarririk gabe eman eta jaso da 2015ko urtariletik geroztik. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organoek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitatzaleei eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...) Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte eginez”*.

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleitu baitira”*.

Gainera, *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako”* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

557. DEKRETUA

2022.11.29

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MUNDU MIRA KOOP. ELK.	F75054122

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Mundu Mira Koop. Elk. Komunikazio aholkularitza zerbitzua.	22084	1.023,45 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2022ko azaroaren 28an egindako eragozpenezko txostena.

2021eko urtarrilaren 8ko dekretu bidez Mundu Mira Koop. Elk. enpresari esleitu zitzaion kontratua komunikazio-aholkularitza zerbitzua emateko. Kontratu hori 2021eko abenduaren 31a arte egon zen indarraldian. Horrezkeroztik, enpresa berdinak komunikazio-aholkularitza zerbitzua ematen jarraitu du, inolako kontratu-oinaririk gabe, eta hilabetero enpresak helarazitako fakturak iritsi dira.

Anoetako komunikazio-aholkularitza zerbitzua inolako legezko euskarririk gabe eman eta jaso da 2022ko urtariletik geroztik. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organoek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitatzaleei eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...) Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte eginez”*.

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleitu baitira”*.

Gainera, *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako”* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak komunikazio-aholkularitza zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

558. DEKRETUA

2022.12.01

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MAPFRE ESPAÑA COMPAÑÍA DE SEG. Y REAS SA	A28141935
Prozedura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea	8.593,54 €
Kontzeptua	Faktura
Udaleko erantzukizun zibila eta udalaren eraikinen 782280182947 aseguru poliza	1621 (2022-11-07)

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2022ko abenduaren 1ean egindako eragozpenezko txostena.

2021eko urriaren 25ean Alkateak kontratu txikien espediente hasierako txosten teknikoa aurkeztu zuen, Mapfre España, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. enpresak aurkeztutako 078W0048AT034757 aurrekontua atxikituz. Espediente horren kontra Idazkari Kontu-hartzaile honek eragozpenezko txostena egin zuen, 2021eko urriaren 27ko datarekin. 2021eko urriaren 27ko datarekin, Alkateak Idazkari Kontu-hartzailearen eragozpenezko txostena altxatu zuen eta Mapfre España, Compañía de Seguros y Reaseguros, S.A. enpresaren aldeko esleipena egin zuen. Orain, automatikoki berritu da poliza.

Goian aipatutako aseguruia inolako legezko euskarririk gabe kontratatu da. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, urtez urte kontratatu ditu aseguru berdinak, kontratu txikien berezkoa den zuzeneko esleipena erabiliz, eta publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe.

“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako” kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak kiroldegiko obradorearen aseguruia prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar izango lituzke, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera.

559. DEKRETUA

2022.12.01

Hartzekodunak	IFZ / IFK
URBEGI ZERBITZU TEKNIKOAK, S.L.	B20901500
Prozedura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea	167,14 €
Kontzeptua	Faktura
Lasarbe kultureguneako gas galdararen 2022 urteko mantenu kontratua	23921 (2022-09-13)

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2022ko abenduaren 1ean egindako eragozpenezko txostena.

Udaleko bulegoetan ez da Lasarbe kulturguneko gas galdararen mantenu-zerbitzuarek dagokion espedienterik topatu. Hortaz, Idazkaritza Kontu-hartzailetzak honek kontsulta egin du Sarekon, IZFEko aplikazioa kontabilitatea eramateko aplikazioa, eta ikusi du Udal honek gutxienez (ez du kontsulta egin gainerako urteetan) 2019tik kontratatzen dituela Lasarbe kulturguneko gas galdararen mantenu-zerbitzuak Urbegi Zerbitzu Teknikoak, S.L. enpresarekin, inolako kontratu-oinarririk, espedienterik, ez beste izapiderik gabe.

Lasarbe kulturguneko gas galdararen mantenu-zerbitzua inolako legezko euskarririk gabe eman eta jaso da gutxienez 2019tik geroztik. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organoek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitatzaleei eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...) Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagozkionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte eginez”*.

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleitu baitira”*.

Gainera, *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako”* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIReSCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak adierazitako zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

560. DEKRETUA

2022.12.01

Hartzekodunak	IFZ / IFK
RICOH ESPAÑA, SLU	B82080177
Prozedura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Faktura kontratu txikietan onartzea	360,60 €
Kontzeptua	Faktura
Bulego Orokorretako inpresoraren fotokopien fakturazioa	844044126 (2022-11-06)

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzailetzak 2022ko abenduaren 1ean egindako eragozpenezko txostena.

Goian aipatutako gastua 2016ko ekainaren 14an egindako esleipen dekretuan oinarritzen da. Bertan ebatzi zen *“RICOH ESPAÑA SLU enpresa hornitzaile duela, BNP PARIBAS LEASING SOLUTIONS enpresarekin Y0012627 arrendamentu kontratua onartzea, jarraian jasotzen diren gastuak baimenduz: hileko 263,83 € + BEZ, eta kopiako prezioa: zuri beltzean, 0,0048 € orrialde bakoitzeko; eta koloretan, 0,0291 €/orrialde bakoitzeko”*. Dekretu horretan jasotzen zen legez, *“Aipatu kontratua urtebeterako izango da eta kontratuan ordaintzen diren kontzeptuak dira, batetik, multifuntzionalaren alokairua, eta bestetik, bere mantenua (tonerra, teknikariaren aistentzia, garbiketa...)”*. Horiek horrela, ez dago txosten honen xede den gastuari estaldura ematen dion kontratazio-prozedurarik, ezta dokumenturik ere.

Bestalde, argi dago urtez urte enpresa berarekin kontratatutako zerbitzua dela, publizitate- eta lehia-printzipioak betetzen direla bermatzeko beharrezko lizitazio-prozedurarik izan gabe. Izan ere, fotokopien hornidura-kontratuak herri-administrazioen kontratazioari buruzko legeriari lotutako administrazio-kontratu tipikoak dira, eta lizitazio-prozedura egokiaren bidez esleitu behar dira, 9/2017 Legearen 138. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratu-mota horien artean, serbidorearen mantentze zerbitzu-kontratuak ezin dira kontratu txiki bidez esleitu, segidako traktuko prestazio errepikariak baitira. Gainera, Anoetako Udalak, 2018ko otsailaren 7ko Alkatezako Dekretu bidez, imprimagailuen hornidurarako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kontratazio Zentralaren esparru akordiora

atxikitzea adostu zuen. Esparru akordio hori 2018ko urriaren 22an sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L. enpresarekin. Idazkari-kontuhartzailerik honek Udaletxeko bulegoetan bilaketa egin ondoren, ez du topatu inon 2008 Makelsako Gipuzkoa, S.L. enpresaren alde egindako ez esleipen dekreturik, ez kontratu eratorririk, ezta luzapen-dekreturik ere. Hortaz, puritatean, ez dago kontraturik, Anoetako Udalak ez baitu kontratu eratorririk egin, ezta ondorengo luzapenak onartzeko dekreturik ere (SPKLren 36.3 artikulua). Hala ere, erakunde bat Kontratazio Zentralak izapidetutako esparru-akordio bati atxikitzen zaionean, dagokion kontratu eratorria egiteko konpromisoa eta betebeharra hartzen du, eta, are garrantzitsuagoa dena, esparru-akordioaren xede diren prestazioak enpresa esleipendunarekin kontratatzekoa. Bestela, Udalak prestazio horiek enpresa esleipendunarekin kontratatuko ez balitu, enpresari kalte egingo lioke; izan ere, enpresa horrek lizitatu eta eskaintza egin zuen, besteak beste, udal honen atxikipena kontuan hartuta; harekiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko zuen konpromisoa ez luke beteko, eta esparru-akordioan ezarritakoa ere ez luke beteko (SPKLren 39.2.f. artikulua). Hortaz, kontratu horretatik kanpo eta enpresa esleipenduna ez den beste batekin egindako xede berdineko kontratuek adierazitako akordio markoan xedatutakoa urratzen dute, enpresa esleipendunarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hartutako konpromisoa urratzen dute eta erabat deusezak dira, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 39.2.f) artikuluan xedatutakoaren arabera.

564. DEKRETUA

2022.12.01

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MUNDU MIRA KOOP. ELK.	F75054122

Prozedura

Faktura kontratu txikietan onartzea

Kontzeptua	Faktura	Zenbatekoa (BEZ barne)
Mundu Mira Koop. Elk. Komunikazio aholkularitza zerbitzua.	22103	1.023,45 €

Laburpena

Idazkaritza Kontu-hartzaileak 2022ko abenduaren 1ean egindako eragozpenezko txostena.

2021eko urtarrilaren 8ko dekretu bidez Mundu Mira Koop. Elk. enpresari esleitu zitzaion kontratua komunikazio-aholkularitza zerbitzua emateko. Kontratu hori 2021eko abenduaren 31a arte egon zen indarraldian. Horrezkerotik, enpresa berdinak komunikazio-aholkularitza zerbitzua ematen jarraitu du, inolako kontratu-oinarririk gabe, eta hilabetero enpresak helarazitako fakturak iritsi dira.

Anoetako komunikazio-aholkularitza zerbitzua inolako legezko euskarririk gabe eman eta jaso da 2022ko urtariletik geroztik. Hortaz, aurretik esandako guztia kontuan hartuta, Anoetako Udalak kontratazio publikoa arautzen duen legedia eta oinarritzko printzipioak urratu ditu. Izan ere, SPKLren 132. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“kontratazio-organismoek berdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko tratamendua emango diete lizitatzailerik eta hautagaiei, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute (...) Kontratazioa ez da sortuko publizitate-betekizunak edo dagokion esleipen-prozedurari dagokionak saihesteko asmoz, ezta lehia artifizialki murrizteko asmoz ere, enpresaburu jakin batzuei bidegabeki mesede edo kalte eginez”*.

SPKLren 131.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, *“Esleipena egiteko, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako hainbat esleipen-irizpide erabiliko dira normalean, eta prozedura irekia edo murriztua erabiliko da, IV. eranskineko zerbitzu bereziak emateko kontratuak izan ezik, azken horiek azken prozedura horren bidez esleitu baitira”*.

Gainera, *“Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utzita emandako”* kontratuak erabat nuloak dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1.e) artikulua eta SPKLren 39.1. artikulua arabera.

Ondorioz, goian adierazitako fakturaren ordainketa ez da oinarritzen gaur egun indarrean dagoen Sektore Publikoko legedian, ez kontratu txikiei buruzko otsailaren 28ko 1/2019 Jarraibidea argitaratzen duen Kontratazioa Arautzeko eta Ikuskatzeko Bulego Independentearen (OIREsCon) 2019ko martxoaren 6ko Ebazpenean, ezta Anoetako Udaleko kontratu txikiak arautzen dituen 1/2021 Jarraibidean ere, eta horietan jasotakoaren kontrakoa da; beraz, ez onargarria. Anoetako Udalak komunikazio-aholkularitza zerbitzua prozedura irekiaren edo murriztuaren bidez esleitu behar zuen bere momentuan, beti ere kontratuen ezaugarrien, iraupenaren edota prezioaren arabera, oraingo honetan egin duen bezala.

566. DEKRETUA

2022.12.02

Hartzekodunak	IFZ / IFK
MADDI SARASOLA EIZMENDI	44332401Q
ADO	Zenbatekoa
“P” fasea	2.623,63 €

Kontzeptua

Maddi Sarasola Eizmendiren nomina: 2022ko azaroa + 2022rako igoera gehigarria

Laburpena

